

BALEIKE



EUSKARALDIA

**EUSKARAZ HITZ EGIN
GOZATU
BIZI**



C

219€

4kg
67x49x48zm

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

INDESIT
IS41V



B

329€

7kg

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

BALAY
3SC871B

**ORDAINDU
12 HILABETETAN**
Interesik gabe



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8kg

439€

A+

ZANUSSI
ZDH8333PZ



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8kg

489€

A+

AEG
T76385AH3



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8kg

569€

A++

MODAN
GASTATZEKO
50€ OPARI

AEG
T8DBG842



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8kg

569€

A++

BOSCH
WTG87229ES

TIEN 21



www.endañetazumaia.com



BALEIKE 280

2018-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Aurrena Gorka Zabaleta
<i>Victorren super 8a</i> | 31 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Zer da katarro arrunta?</i> |
| 6 | Hitz tantak Maria Maya Manterola
<i>Irati Osa</i> | 33 | Heziketa Izar Arregi
<i>Bullying-a saihesteko, lagunarteko elkarbizitza</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
<i>Aprea</i>
<i>Los Angeleseko behatokia</i> | 34 | Zientzia eta Ingurumena Asier Hilario
<i>Gure mendien sorrera, arestiko klimaren laborategia</i> |
| 10 | Hainbat aburu David Juliá Etxabe
<i>Welcome to Europe</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Albergak, faltaren oroimena</i> |
| 11 | Errematea Miren Osa
<i>Iraila</i> | 42 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Zine foruma, sakeleko Zinemaldia</i> |
| 12 | Erreportajea Jose Castillo
<i>Euskaraldia</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Argazki lehiaketa
<i>Udako argazki lehiaketa 2018</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Kurduen berri badugulakoan</i> |
| 22 | Erretratua Maialen Odriozola
<i>Iñaxio Zearreta, anestesista baten lanak</i> | 45 | Nire txanda Olatz Erdozia Ibañez
<i>Ez dakit, ez nago seguru</i> |
| 26 | Bazkide kluba | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Hiru eszena</i> |
| 28 | Plazan bazan | | |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Gorka Zabaleta
gorka@baleike.eus
Erredaktore taldea
Juan Luis Romatet

Izaskun Urbieta

Maria Maya Manterola
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua

publizitatea@baleike.eus

Administrazio

arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Zumaiako Udala



kutxabank

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943-86 21 52



AIZPURUA LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI dekorazioa



• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna

tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKANDEGIA Arkupera

Nagusia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

GOI-EDER



Arruti ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943-64 34 06
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, beheko tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax. 943-86 27 48



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./fax: 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basodi albaitaritza

Albaitaria
Iñaki Garmendia

Basodi, 7, beheko - tel. 943-14 33 10
veterinari@basodivet.com
www.basodivet.com

Gobez: 11-13 / Arriatza: 16-19-30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia

Lamiakietarako: 605 72 87 07 Etbez ebeko zerbizua



BASUSTA erretegia • asador

José Blázquez

Paxito Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943-86 20 73
943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Egunko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Victorren super 8a



GORKA ZABALETA

Duela hilabete inguru, bi pelikula zahar iritsi zitzaizkigun Baleikera. 1980ko hamarkadan *Telmo Deunek* Kontxako Banderan egindako balentriak kontatzen dituzte. Victor Zubizarretak grabatu zituen super 8 mm kamera batekin, eta editatzeko abilidadea ere izan zuen: muntaketa egin, musika jarri, ahotsa (euskaraz)... Lehen pelikulak ia ordubeteko iraupena du, eta 1980tik 1984ra bitarteko kontuak jasotzen ditu. Bigarrena 1987ko Kontxako Banderaren kronika zehatza eta zabala da, ia bi ordukoa.

Aitortuko dizuet pelikulak ikusten hasi eta ezin izan nituela begiak pantailatik kendu bukatu arte. Ia hiru orduz eduki ninduten Victor Zubizarretaren irudiek erabat harrapatuta. Interneten garaiotan, minutu batez ikuslearen arretari eustea miraria omen da...

Zer dute, orduan, pelikula horiek, ni –eta zumaia asko– horrela harrapatzeko? Zer, hiru orduz pantailari begira egoteko? Gure iragana, izan garena. Gu geu. "Gure *Cuéntame* dek hori!", esan du lankide batek. Horixe. 1980ko hamarkadako *Turbo Deun* haren garaipenak ia mitikoak bihurtu dira zumaia arron oroimenean, eta gauza ederra da orduan zumaia batek kamera hartu eta une historiko haiek grabatzeko lana hartu izana.

Lehen pelikula laburpen moduko bat da; bigarrenean, 1987koan, xehetasun txikiarekin ere dokumentatzeko intentzio nabarmena sumatzen zaio Zubizarretari. Dena grabatu zuen: goizean goiz itsasoa nola zegoen grabatu, Moilako giroa, trainerua prestatzen, jendea tren estazioan, Donostiako giroa, estropadako irudiak, irabazi ondorengo arranplako festa, Jesuskoa jatetxean egindako bazkaria eta ospakizuna, Zumaian egindako errezibimendua, Udaletxeko harrera, Olalde eta Egaña bertsolariak gazte-gazte, Kastor Agirrezabalaga alkatearen hitzak, banderen bedeinkapena handik hilabetera (Udaletxetik irten eta San Telmoraino), Don Joseren sermoia, banderen erakusketa, Mikel Olazabal Goiko elkarrizketatzen (hor segitzen dute biek!)... Den-dena.

Victor Zubizarretaren irudietan orduko Zumaia eta zumaia arrak ageri dira. Haurtzaroan eta nerabezaroan bizi izan nuen Zumaia da pelikula horietan ikusi dudana eta oroimenean ia galdutako irudiak berriro dizkit. Horrek harrapatu nau. Nola aldatu den herria (lehen pelikulatik bigarrenera ere bai!) eta nola aldatu garen zumaia arrak.

Seguru nago horrelako pelikula gehiago badaudela herrian. Victorrek berak badauzka; eta ezagutzen ditugu, Victorrek bezala, herriko gertakizunak grabatzeko afizioa izan duten eta duten zumaia arrak. Material zoragarria dago, beraz, etxeetan gordeta. Hona nire proposamena, entzun nahi duenari: pelikula horien kopiak egin, behar bezala artxibatu, irudiak ikertu, edukiz osatu eta ezagutzera ematea. ■■■

**HAURTZAROAN ETA
NERABEZAROAN BIZI
IZAN NUEN ZUMAIA DA
PELIKULA HORIETAN
IKUSI DUDANA**

Irati Osa

TESTUA: MARIA MAYA MANTEROLA

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Etiket al datorkizu piragurekiko zaletasuna?

Nire aita [Xabier Osa] piraguan ibilia da aspalditik. Piraguan izena eman nezakeen lehen urtean ez nuen egin, tenisean jokatu nahi nuelako. Zumaian ez zegoen horretarako aukerarik, ordea, eta Donostiara joan beharko nuen egunero.

Ezinezkoa zela esan zidaten gurasoek, eta beste kirol bat probatzeko eman nuen izena piraguan. Gainerakoak baino urtebete geroago hasi nintzen, alebiren bigarren urtean.

Gogoan duzu piraguan ibili zinen lehen eguna?

Ez. Oso txikia nintzen. Aitak, gainera, piraguan gainean jartzen ninduen, lehorrean, baditut argazki batzuk ere.

Gustura zaude denboraldi honetan egindako lanarekin?

Aurrendenboraldian helburu batzuk jarri nituen, eta denak bete ditut. Lehenik eta behin, Europarako eta mundialerako sailkatu nahi nuen. Horretarako lan egin dut buru-belarri, nire helburu nagusia zelako. Horra iristeko, ordea, Euskadiko eta Espainiako txapelketak pasa behar dira. Euskadiko txapelketa irabazi nuen, negukoak ere bai, maratoikoa, Espainiako negukoan erdialdean daudenekin aurrean aritu nintzen, maratoian nire kidea eta biok aurrean ibili gara... Beraz, bai, lortu ditut helburuak.

Binaka hartu zenuen parte jubeniletan. Aldea egongo da, ezta?

Jubeniletako bi urteetan joan nintzen K-2an, Ainhoa Hildagorekin batera. Jubeniletan binaka ere sartu nintzen mundialera, baina bakarrik edo binaka jokatzearen artean erabaki behar izan nuen. Harreman ona nuen Ainhoarekin, eta elkarrekin parte hartzea erabaki genuen. Binaka zoazenean, zerbait gaizki egiten baduzu, badakizu bestearengan eragina izango duela. Alde horretatik, beldur gehiago nuen, bakarrik nengoelako.

Portugalen bosgarren postua lortu duzu uda honetan.

Egia esan, ez nengoen urduri. Neure buruari esan nion: "Honaino iritsi zara, orain gozatu eta kito". Egia esan, harrituta nengoen lehen hamar paladetan lehenbiziko postuan nengoelako. Besteek aurreratu ninduten, eta olatuaren atzean jarri nintzen. Bederatzi neska gindoazen hasieran, eta ziabogaren ondoren, sei pertsona geratu ginen. Bigarren bueltan, hiru eta hiru banatu ginen. Ni bigarren multzoan nengoen. Aurrekoak berriz banatu ziren, bat lehen postuan eta beste bi atzetik. Horiek harrapatu nahi nituen, domina lortzeko aukera bat izan zitekeelako.

Entrenatzaileak hirugarrena zenbat denborara nuen esaten zidan. Laugarren bueltan denbora asko atera zidan. Bosgarren sailkatu nintzen azkenean.

Txinako mundiala jokatu da datorren urtean.

Horra sartzeko helburua jarri diot neure buruari. Aurten bosgarren egin dudanez, datorren urtean hobeto egin nahiko dut... Erronka handia da, eta ez da erraza izango.

Nolakoa da Irati Osaren egun bat?

Lehen Hezkuntza eta Ariketa Fisikoa eta Kirolaren Zientziak gradu bikoitza ikasten ari naiz Donostian. Goizean goiz kotxez joaten naiz klaseetara, unibertsitatean egon eta eguerdian itzultzen naiz bazkaltzera. Lanak egin eta 18:30ean joaten naiz entrenatzera, Zumaian bertan, mutilekin.

Etxera oso berandu iristen naiz, 22:00ak aldera. Ikasteko ez dut arazorik izan, dena ongi antolatzen dudalako eta neure buruari asko eskatzen diodalako.

Astelehenetan atsedenaldia hartzen dut, eta pilates eta panka egiten ditut. Prebentzio moduan egiten ditut ariketak, guztia ez delako entrenatzea: lesio bat baldin baduzu, denboraldia bertan behera gera daiteke. Larunbatetan, aldiz, goizez eta arratsaldean entrenatzen naiz.

Gogor egin dut lan, baina, ezinezkoa izango litzateke ingurukoen laguntzarik gabe. Xabier Osak eta Joxe Manuel Balenciagak, besteak beste, asko lagundu didate. ■■■





Los Angeleseko behatokia

ARGAZKIA ETA TESTUA:

ARNAITZ RUBIO APREA

Argazkia 2013ko uztailean atera nuen, lagunekin Estatu Batuetara egindako bidaia batean. Irudian ikus daitekeen eraikina Griffith Observatory da. Eraikin hau Los Angelesen dago, Hollywoodeko mendian. Bertan, unibertsoaren eta zientziaren erakusketak izaten

dira. Handik Los Angelesen ikuspegi aparta dago.

Argazkia atera nuenean gaua zen eta argi gutxi zegoen. Beraz, argazkiak obturazio abiadura baxuan atera nituen, ahal izan nuen neurrian. ISO sentsorearen sentsibilitatea gehiago igoz gero



irudiek argitasuna galduko zuten. Denbora genuen, eta lurrean etzan nintzen, buruz behera. Jendea flipatzen zegoen. Kamera lurrean jarri nuen eta horrekin irudia ez mugitzea lortu nuen, lausoa ez ateratzea. Pasatzen zen jendearen estelak

lortu nituen horrela, eta irudi dinamiko bat lortu nuela uste dut. Hau da obturazio abiadurak ematen duen efektuetako bat. Kamera automatikoekin nekez lortuko dira halako efektuak. Beraz, argazki honekin kameraren

funtzionamendua ikastera animatzen dut jendea. ■■■

Datu teknikoak: Nikon D300s; Nikon 17-55mm F2.8 AF-S G ED DX; 1/8segundoko esposizioa; F2.8; ISO: 500; 17mm;



Welcome to Europe

Lesbos irla entzutean denok ditugu gogoan 2015eko udazkena eta egun haietan ikusitako argazkiak, errefuxiatuz beteriko txalupen irudiak, irailaren 2an, Nilufir Damir argazkilariak ateratako Aylan umearen argazkia, izara isotermikoeekin babestutako umeen irudiak edo Balkanetako bide luzeetako ibilaldiak. Siriako gerra pil-pilean eta Europa errefuxiatu haiekin zer egin pentsatzen. Denbora gutxi behar izan zuen Europar Batasunak egoerari aurre egiteko, 2016ko martxoaren 18an iritsi zen Turkiarekin akordiora, dirua errefuxiatuen truke. Europan egon den egunik lotsagarriena.

“Ongi etorri Europara!”, esan nion gazte bati gauz hiru ordu itsasoan pasa ondoren, baltsatik ateratzen laguntzeko

eskua ematen nion bitartean. Ez naiz gai izan esaldi hori errepikatzeko hurrengo geltokia zein den jakinda. Harrera epela egiten saiatzen gara, momentu batez salbu daudela erakutsi, polizia iritsi eta Moriako errefuxiatu kanpamentura eramaten dituzten arte.

Moria kanpamentuak, ofizialki, 3.100 pertsona izan ditzake gehienez. Gaur egun 8.900 pertsona baino gehiago bizi dira egoera jasanezinean. Militarrek emandako janaria

jasotzeko hiru edo lau orduko ilarak egin behar izaten dituzte metro erdiko zabalera eta txarrantxak dituen korridore batean zehar. Janaria, arroz zuria ogi zati batekin, egoera txarrean dagoen oilasko zatia edo kasu onenetan, haburgesa zati bat izan daiteke, tomate pixka batekin. Intimitaterako lekurik gabe eta mugitzeko espazio minimoarekin, gaua iristean beldurra eta tentsioa biderkatu egiten dira. Maiz ikus daitezke familiak berandura arte paseatzen kostaldean edo errepidean Moriara buelta egiteko beldurrez. Gauero gertatzen baitira borroka bortitzak, edo ume, emakume eta gizonen bortxaketak. Lau urteko ume bat taldean bortxatua izan da azken astean. Hotzikarak sortzeko moduko egoerak.

**HARRERA PEPLA
EGITEN SAIAZEN
GARA, MOMENTU
BATEZ SALBU DAUDELA
ERAKUSTEKO**

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



MIREN OSA

Iraila

I railak kolore bat izan beharko balu, grisa izango litzakeela aipatu zenidan behin, eta musikari bat izango balitz, Anari izango litzatekeela. Egia biribilak muturraren aurrean jartzen dizkizun horietakoa. Iraila zerbait bada, trantsizio garaia baita; udatik negura, oporretatik lanera, arduragabetasunetik erronka berrietara.

Ezjakintasunaren eta ezegonkortasunaren eszenifikazio ideala iruditzen zaizu beti iraila: kaosaren hilabetea, norberaren ganbara txukuntzeko balio duten 30 egunak. Ordura arte etorkizunean zer egin/nola egin/non egin/norekin egin bigarren mailako arazoak ziren bitartean, hezur haragizkoak bilakatu zaizkizu iraganeko mamuak bederatzigarren hilabetea, eta arestian aipatutako galderek erantzunak behar izaten dituzte: masterra egingo du Anek, arratsaldeetan haurrak zaintzen hasiko da Jone, Mikelek yogako ikastaroetan eman du izena, Amaiaz maitemindu da Lur.

Zuk, ordea, hasierako galdera berdinekin amaitu duzu hilabetea, eta erantzunak aurkitu beharrean, galdera gehiago batu zaizkizu zerrendara. Urrian ebatzi beharko dituzu aurretik egin gabeko etxeko lanak. Bitartean, egon lasai, trantsizioaren amaiera norberak finkatzen baitu. ■

Medicines Sans Frontiers-eko (MSF) langileek kontatzen digute umeak edo kasu oso larrienak bakarrik arta ditzaketela, ez baitute gehiago artatzeko ahalmenik. Gainera, artatzen dituzten trauma psikologiko gehienak Morian sortutakoak direla kontatzen digute; hamar urteko ume batek bere buruaz beste egiteko saiakera, besteak beste, azken asteen. Errefuxiatu lagunek askotan esan digute, aukeran, etxean geratuko liratekeela. Inondik inora ez zutela egoera hau espero. Europak ongi etorria emango ziela uste zuten.

Morian bizi ez direnak pisuetan edo kanpamentu txikiagotan bizi dira, batzuek nahiago dute kalean bizi Morian baino. Hainbat proiektu eta talde egoera leuntzen saiatzen gara, irribarre bat,

igeriketa ikastaro bat, egun pasa egiteko espazio bat, laguntza legala, janari epela edo adiskidetasuna eskainiz. Beti korrontearen kontra, proiektuak zabaltzen, gobernu horiek ixten saiatzen den bitartean.

Irla hau inguratzen duten muga natural eta artifizialek kartzela ireki bihurtzen dute. Egoera bortitzetatik ihes egin duten pertsona hauek mendi, itsaso eta desertuak zeharkatu dituzte, bizimodu hobe baten itxaropena galdu gabe, irla honetara iritsi, eta ametsak zapuztu zaizkie. Amestutako Europa hori mugatua dela konturatu dira, ez da leku segurua, faxismoa dute muga horien zaindari, Europar Batasuna. Europaren arrazismoari aurre egitea da euren egunerokoa. ■



Zumaiako aho eta belarriak astintzeko presta Euskaraldia

Hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz komunikatzera deitu dituzte herritarrak Euskal Herri mailan egingo den Euskaraldia ekimenaren baitan.

Testua: **Jose Castillo**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea

Aurtengo Euskararen Eguna aurreko urteetan ospatutakoarekin arras ezberdina izango da, euskal hiztunak aktibatzekeo ekimen erraldoi baten amaiera eguna izango baita. Izan ere, azaroaren 23tik abenduaren 3ra milaka euskal herritar, zumaiarrak barne, hamaika egunez euren eguneroko bizitzako esparru ezberdinetan soilik euskaraz komunikatzera deitu ditu Euskaraldia ekimenak. Baina Euskaraldiak ez du soilik bilatzen jada euskal hiztunak diren horien konpromisoa euskaraz komunika daitezen. Traba sozial eta kulturalen gainetik, euskal hiztun potentzial izan daitezkeen herritar horiek guztiak aktibatzea ere bilatzen du ekimenak. Beraz, euskaraz hitz egin eta ulertzeko gai diren herritarrak izango dira ekimeneko protagonistak.

Ekimenaren arrakasta bermatzeko, Euskaraldiak parte hartzaileeen bi profil osatu ditu. Batetik, *ahobizi* papera dugu, euskaraz hitz egiteko gai den edozein pertsonak jokatua. Euskaraldiaren bultzatzaileek gogorarazten dutenez: "*Ahobizi* izateak ez du zerikusirik euskaraz hitz egiteko gaitasun hutsarekin, jokaerarekin baizik, posible den egoera guztietan euskaraz hitz egiteko joerarekin". *Ahobizi* guztiek euskaraz hitz egiten edota ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartuko dute. Beraz, edozein kasutan euren lehen hitza euskaraz izango da.

Bestetik, *belarriprest* profila dugu. Hauek euskaraz dakiten guztiei euri euskaraz hitz egiteko gonbita egingo diete. Euskara ulertzen dutela adieraziko dute eta euskaraz hitz egiteko eskatu, ondoren horiek euskaraz edota erdaraz erantzungo diete euren hizkuntz gaitasunaren arabera.

Euskaraldian, parte hartuko duten herritarrek ekimenean izena eman beharko dute bi roletako batean. Horretarako, izen ematea jada zabalik dago euskaraldia.eus webgunean. Euskaraldia hasi arte, Zumaiako kideak ere hainbat egunetan izango dira kalean informazioa banatzen eta izenak jasotzen.

Euskaraldiaren helburua da gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertiak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea. Horregatik, *Baleiketik* bi rolak hartuko dituen jendearen iritzi eta asmoak bildu ditugu.



Sebastien Cartier: «Jendeari eskatzen diot niri euskaraz hitz egiteko eta nik gaztelaniaz erantzungo diedala, baina egoera hau oraindik ez da normalizatu»

2010ean iritsi zen Sebastien Cartier Frantziatik Zumaiera lan eta familia arrazoiak zirela eta. Egun euskara ulertzeko gai da, eta hitz egiten ere hasia da. Euskaraldian zehar *belarriprest* rola hartuko du.

Zer erlazio izan duzu euskararekin?

Euskararekin izan dudana erlazioa familiari eta kaleari esker izan da. Gehienbat, nire emaztearekin eta nire alabekin ikasi baitut euskara. Kalean entzun eta hitz egiten saiatzeak ere lagundu dit euskara ikasten. Frantzia bizi nintzela, ez nuen inoiz izan euskararekin kontakturik, ia esan daiteke existitzen zenik ere ez nekiela. Ondoren, Bartzelonan eta Arrasaten izan nintzen, eta han izan zen nire lehen kontaktua euskararekin, baina Zumaian izan arte ez nintzen hasi ikasten.

Zein izan ziren euskara ikasteko arrazoi nagusiak?

Zein izan dira zailtasun nagusiak?

Nire alabekin euskaraz hitz egin eta kaleko jendeak

"EUSKARAREKIN IZAN DUDAN ERLAZIOA FAMILIARI ETA KALEARI ESKER IZAN DA"



mintzatzen zuen hizkuntza hau ulertu nahi nuen. Ez nuen «kolono» hutsa izan nahi. Euskara ikastea niretzat beti izan da zaila, beti ez baitut izan hau ikasteko nahi izango nuen denbora edota gogo guztia. Askotan, gainera, oraindik ere zaila egiten zait euskaraz nik nahi dudana bezala adieraztea, baina esperientziak merezi izan du.

Euskaraldian, zer konpromiso hartzeko prest zaude?

Nire kasuan, *belarriprest* izango naiz. Agian, oraindik ere, euskaraz gauza konplexuak adierazteko eta elkarriketa bat soilik euskaraz eramateko zailtasunak ditut, baina euskaraz dakien edonori eskatuko diot niri euskaraz hitz egiteko. Askori esaten diet beraiek niri euskaraz hitz egiteko lasai eta nik gaztelaniaz edota frantsesez erantzungo diedala, baina zorritzarrez egoera hau oraindik ez dago normalizaturik.

Miren Osa: «Euskaraz dakigunen, euskara ulertzen dutenen eta ikasten ari direnen arteko borondatea da euskaraz harremanak izateko gakoa»



Zumaian jaio eta bizi izan da bizi guztian zehar Miren Osa zumaia gaztea. Kazetaria da ofizioz eta euskararekin duen harremana ezin estuagoa denez, bere egunerokoan bezala, Euskaraldian zehar ere *ahobizi* izango dugu.

Posible ikusten duzu Zumaia bezalako herri batean zure egunerokoan euskaraz komunikatzea?

Nik esango nuke edo pentsatu nahiko nuke baietz. Uste dut Zumaia herri euskalduna dela, euskara sentitzen dela kalean eta euskaraz bizi garela. Aldiz,

Gaindegia eskaini zizkigun azkeneko datuak ez ziren hain positiboak izan; beraz, badago hobetzerik. Uste dut gazteen artean gehienok euskaraz hitz egiten dugula, etxean euskara jaso dugula. Gainera, kanpotik datozen familia berriek ere euskaraz ikasteko borondatea badute eta horregatik uste dut

"ASKOTAN EGOERA ZAILAK AURKITZEN DITUGU EUSKARAZ HITZ EGITEKO"

posible litzatekeela gure egunerokoan, Zumaian behintzat, euskaraz bizitzea.

Zer egoerak mugatzen zaituzte euskaraz hitz egiteko orduan?

Uste dut zailtasunak eta mugak berez jada existitzen direla eta ezarriak direla. Askotan egoera zailak aurkitzen ditugu euskaraz hitz egiteko. Gakoa zailtasun horiei aurre egiteko borondatea litzateke. Euskaraz dakigunen, euskara ulertzen dutenen eta ikasten ari direnen arteko borondatea da euskaraz harremanak izateko gakoa. Egun, garraio publikoan edota medikuaren kontsultan "egun on" batekin ez bagaituzte hartzen, euskaraz hitz egiteari uko egiten diogu askotan. Denon arteko borondatearekin hautsi beharko genuke muga hori. Nik euskaraz badakit eta zuk ulertzen baduzu, egidazu gaztelaniaz nahi baduzu, baina nik euskaraz erantzun dizut eta elkar ulertuko dugu.

Euskaraldian, zer konpromiso hartuko duzu?

Orain arte bezala euskaraz hitz egiten jarraitzekoa, Lehen hitza euskaraz egitekoa. Noski, euskaraz ondo ez dakiten horiekin ere tentuz jokatzeko saiaturik naiz, astiroago hitz egiten elkar ulertuko dezagun.

Javier Manteca: «Uste dut euskara indartzearen eta kalean ez galtzearen ardurak denon inplikazioa eskatzen duela»



Aski ezaguna da Javier Manteca gure herrian Eusebio Gurrutxaga plazan dagoen “Txurre” izozki eta goxoki dendako saltzaile izateagatik. Gaztetan ez zuen euskaraz ikasteko aukerarik izan, eta dendako zein kaleko erlazioak baliatu ditu ikasteko. Oraindik beti euskaraz hitz egiteko lana badu ere, **belarriprest** papera betetzeko prest agertu da. **Zein izan da zure erlazioa euskararekin?**

Ez nuen txikitik euskaraz ikasteko aukerarik izan eta nire erlazioa euskararekin Zumaiako lagunei eta dendara etortzen diren gaztetxoei esker izan da, batik bat, euskaraz hitz egiten baitute gehienek. Horrela, pixkanaka

**"KALEKO KONTAKTUA
IZAN DA NIRE ESKOLA
EUSKARARI
DAGOKIONEZ"**

hizkuntzarekin trebatzen joan nintzen, oraindik euskaraz guztiz egoki adierazteko gai ez banaiz ere. Kaleko kontaktua izan da nire eskola euskarari dagokionez.

Zein izan ziren euskara ikasteko arrazoi nagusiak? Zein izan dira zailtasun nagusiak?

Lagun euskaldunak izan ditut gazte nintzenetik eta horiei ulertzea izan daiteke arrazoi nagusia. Bestalde, uste dut negozioarako ere garrantzitsua dela, gaztetxoak eta ez hain gazteak niregana etortzean euskaraz elkar ulertu eta erantzun ahal izateko.

Euskaraldian, zer konpromiso hartzeko prest zaude?

Uste dut euskara indartzearen eta kalean ez galtzearen ardurak denon inplikazioa eskatzen duela, euskaraz txikitatik dakiten horiena eta euskara geroago ikasi dugunona. Horretan, gazteriak paper garrantzitsua jokatzen du, hezkuntza guztiz euskalduna izateko aukera izan baitute. Baina, hala ere, oraindik kuadrillen arabera, eskolatik kanpo, uste dut gazte ugarik gaztelaniaz gehiago mintzatzeko joera dutela, alderdi hau hobetu beharko litzateke.

Marina Shulgina: «Euskaldun berriok euskara batuaz hitz egingo dugu eta batzuetan erratuko gara, baina pazientziaz eta tolerantziaz guztiok egingo dugu aurrera»

Marina izatez errusiarra da eta orain dela hiru urte pasatxo iritsi zen gura. Lehen urteak gidari turistiko lan egin ostean, egun Zelai talasoterapiako langilea da. Herrira azkar egokitu zen Marina, bere egonaldi laburrean jada euskara ulertu eta hitz egiteko gai baita. Euskaraldian orain arte konpromiso berarekin segitzeko asmoa adierazi du. **Zein izan da zure erlazioa euskararekin?**

Badakit oraindik ez naizela gai euskaraz guztiz ondo adierazteko. Baina hizkuntzak ikasteko erraztasuna nuen, euskara ikastea erabaki nuen. Hemengo jendearekin komunikatzeko aukera ematen dit, egia da. Baina, oraindik euskaldun zahar asko edota baserriko jendea hotelera etortzen denean eta arin hitz egiten didanean, astiroago mintzatzeko edota gaztelaniara pasatzeko eskatu behar izaten diet, ez baitiet beti ulertzen. **Zein izan ziren euskara ikasteko arrazoi nagusiak? Zein izan dira zailtasun nagusiak?**

"LAGUNEI ESATEN NIEN EUSKARAZ ENTZUN NAHI NITUELA, HORRELA NIK ERE IKASTEKO"



Konturatu nintzen hemen lagunartean edo kuadrillan aurkitzen garenean, bi edo hiru pertsonak euskaraz ez badakite automatikoki gure elkarrizketaren hizkuntza gaztelaniara aldatzen dela. Nik ez dut hori gertatzerik nahi eta askotan esaten nien nire lagunei euskaraz entzun nahi nituela, horrela nik ere ikasi eta praktikatzeko. Baina euskaraz ondo hitz egiten ez dudala ikustean, askok oraindik gaztelaniaz erantzuten didate, nahiz eta nire asmoa ez izan hori. Bestela, uste dut Zumaiako giroa euskaraz hitz egiteko oso ona dela, kalean

zein tabernetan asko entzuten da eta horrek asko lagundu dit hizkuntza ikasteko.

Euskaraldian, zer konpromiso hartzeko prest zaude?

Lehenik, euskaraz hitz egiten jarraitzea. Bestetik, jendeari erakustea euskaldun berriok euskaraz hitz egin dezakegula lasai asko, nahiz eta batzuetan astiroago egin edota norbaiten laguntza behar izan guk nahi duguna adierazteko. Agian euskara batuaz hitz egingo dugu eta batzuetan erratuko gara, baina pazientziaz eta tolerantziaz guztiok egingo dugu aurrera.

Celia Rojo: «Ez da arrazoirik euskaraz ikasi izana ospatzeko, guztiz normalizatuta egon beharko litzateke»

Celia Rojo Hernanin jaio zen, baina Espainiako Estatutik etorritako gurasoen alaba izanik, ez zuen gaztetan euskaraz ikasteko aukerarik izan. Egun, Zumaian bizi da eta senarra zein alabak euskaldunak ditu. Hori dela eta, euskaltegiko euskara klaseetara joaten da euskara maila hobetzeko asmoz, bere hitzetan guztiz normalizatuta behar lukeen egoera baita hau.

Zein izan da zure erlazioa euskararekin?

Nire erlazioa euskararekin egunerokoa da, etxean eta kalean jasotzen dut. Gainera, nire euskara praktikatu eta hobetzeko euskaltegian klaseak jasotzen nabil. Egutero praktikatzen saiatzen naiz, euskaltegian ikasturtean zehar eta etxean ahal dudun uneoro. Aipatu beharra dut euskaltegian hasi nintzenean Azkoitian izaten nituela klaseak eta bertan Zumaian baino euskara gehiago entzuten zela kalean; egun, ordea, uste dut egoera aldatu dela.

Zein izan ziren euskara ikasteko arrazoi nagusiak? Zein izan dira zailtasun nagusiak?

Euskara ikastearen ohiko zailtasunez gain, nabarmenduko nuke euskaldun zaharrekin hitz



egiteko zailtasuna. Beraien hizkuntza denez, eta hain normalizatuta dutenez, askotan azkar hitz egiten dizute. Uste dut ulertu beharko luketela guri askotan kosta egiten zaigula jarraitzea eta honen erruz askotan gaztelaniaz hitz egiten amaitzen dugula. Niretzat hori da euskaraz erlazionatzeko izan dudun traba nagusia.

"EUSKARA EGUTERO PRAKTIKATZEN SAIATZEN NAIZ, EUSKALTEGIAN ETA ETXEAN"

Baina nire gizona zein alabak euskaldunak dira, eta euren mundura integratu eta batu beharra ikusten nuen. Halaber, egun lanbide bat topatzeko gero eta beharrezkoagoa da euskarazko titulu bat.

Euskaraldian, zer konpromiso hartzeko prest zaude?

Euskaraz hitz egiten jarraitzea, baina hau niretzat ez da konpromisoa, egutero jarduna baizik. Ez da arrazoirik euskaraz ikasi izana ospatzeko, guztiz normalizatuta egon beharko litzateke. ■

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Oporretara goaz Urriak 15-31 bitartean




Ondoren, gozatu gure sukaldeaz
mokadu, errazio eta pintxo bereziekin
jatetxe zerbitzurik gabe



Julio Beobide, 2 • 943-57 49 86

Adako argazki lehiaketa 2018



Ehundik gora argazki jaso ditugu lehiaketan. Hemen dituzue horietako batzuk eta ondoko orrialdean sarituak izan diren biak. Eskerrik asko parte hartzeagatik.



EPAIMAHAIAREN
SARIA: Soraya
Lopez



PUBLIKOAREN
SARIA: Maialen
Izagirre



BABESLEA:

bqd bidaiak
viajes ~ travel

Pazientearen ongizatearen zaindari

Inaxio Zearreta, anestesista baten lanak

Inaxio Zearretak (Zumaia, 1973) Zumarragako Ospitalean egiten du lan, sendagilea da, zehatzago esanda, anestesista. Hamabost urte daramatza ospitale horretan, gustura dago han, eta pasioz bizi du bere lana. Nahiz eta askok ebakuntza gelarekin lotu, Zearretak dio alor asko ukitzen dituen lanbidea dela berea. Hala, bada, *Baleikeri* kontatu dio zein diren anestesista baten funtzioak eta lanak.

Testua: **Maialen Odriozola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Reki, sartu, konpondu, aldatu, kendu, moztu, josi... aritu ohi zaizkie pazienteei ebakuntza gelan daudenean, baina esnatzen direnean, ez dira ezertaz gogoratzen. Amets batean egon ohi dira gehienak, eta ez dira ohartzen lo zeuden bitartean zertan aritu diren euren gorputzetan. Zailtasun handikoak izan zein errazak, anestesistak amets bilakatzen ditu ebakuntza guztiak.

Hain zuzen ere, hori da askoren ustez anestesistaren lan bakarra: pazienteak lokartzea. Are gehiago, Zearretak kontatu duenez, bada uste duenik pazienteak lokartzean amaitzen dela anestesisten lana. Ez dela horrela dio, ordea: “inondik inora ere ez”.

Aitzitik, Zearretak azaldu du ebakuntzak irauten duen denboran anestesistak funtsezko piezak direla operazio gelan, eta pazientearen garuna, bihotza edota birrikak, beren esku daudela. Anestesistak arduratzen dira pazienteak lo daudela bizi konstanteak mantentzeaz, seruma jartzeaz, tentsioa zaintzeaz, arnasketa ahalbidetzeaz, minaren maila neurtzeaz edota lo jarrai dezaten farmakoak emateaz, –beste zeregin askoren artean–.

Beste modu batera ere azaldu du Zearretak: “Gu gara, azken batean, pazientearen medikuak ebakuntza gelan; izan ere, zirujauak operatu egiten du, baina anestesista da gaixoa bizirik eta baldintza onetan mantentzen duena”.

Larrialdiren bat dagoenean ere zirujauak operatzen segi behar du, eta anestesistak egiten die aurre konplikazioei: “odol asko galtzen badu, gehiago jartzen diogu; bihotz taupada gutxi badauzka, erritmoa areagotzen diogu, etab.”.

Aurretik, bitartean eta ondoren ere bidelagun

Baina, Anestesistaren lana ez da ebakuntzaren momentura mugatzen. Aurretik hasten da, kontsultan. Han, pazientea ebakuntzarako prestatzen dute; haien historial klinikoa aztertuz, arriskuen inguruko balorazio egin eta informea idazten dute. Horrez gain oso garrantzitsua da kontsultan egiten den lanaren barruan pazientea modu pertsonal eta gardenean informatzea ebakuntzaren prozeduraz, arriskuez...

Izan ere, Zearreta kontziente da pazienteek momentu zailak bizi dituztela beraiekin daudenean. Onartu du ebakuntza gelara egin behar den bidea ere estutasun momentua izan daitekeela; horregatik, operatuko duen pazienteari bere buru aurkeztea gustatzen zaio Zearretari, keinu txiki horrek normalean jendea lasaitu egiten duelako.

Trantzea bakoitzak bere modura bizi duela azaldu du sendagileak, eta bera, guztiena errespetatzen saiatzen dela: “umore oneko pertsona bada, agian txisteren bat eta guzti kontatzen diot; urruti mantentzen bada, ordea, distantzia gordetzen dut nik ere”. Bidean ez ezik,



irrimarra



operazio gelara iristen direnean ere pazienteak baldintza sentitu ez dadin, Zearretak dio gustatzen zaiola azaltzea denbora guztian zertan ari diren: “orain hau jarriko dizut eta hau sentituko duzu, gero beste hau emango dizut...”.

Pazientea lasaitzea du helburu Zearretak; izan ere, aitortzen du jendeak beldur handia diola ebakuntza gelari. Dena den, lasaitasun mezua transmititu nahi du berak: “Zorionez, ebakuntza gelan oso gauza gutxi pasatzen dira. Guztia oso kontrolatuta dago eta horregatik ahal den neurrian aurreratu egiten gara gerta daitezkeen arazoei. Nik beti gauza bera esaten dut: niri zerbait gertatuko balitzait, kirofanoan gertatzea nahiko nuke”.

Operazioaren aurretik eta ebakuntza gelan ez ezik, operatu ondoren pazienteak esnatzen denean ere han daude anestesistak. Beraiek dira ebakuntza osteko fasean pazientearen osatzeaz arduratzen direnak, seguru eta eroso daudela bermatu eta hobetzen ari diren aztertzen dutenak. Senideen ondoan ere egon ohi dira, pazientearen eboluzioaren berri emateko.

Operazioetatik harago

Anestesistaren lana, ordea, ez da ebakuntzetara mugatzen; izan ere, beste alor batzuetan ere esku hartzen dute. Suspertze eremuaz, adibidez, beraiek arduratzen dira, eta hainbat kasutan zainketa intentsiboaren unitatea ere eurak kudeatzen dute.

Etorkizunean beste arlo batzuetan ere anestesisten papera handitzen joango dela uste du Zearretak. Adibide bat jarri du: lehen sedaziorik gabe egiten ziren hainbat proba, orain, kalitatezko zerbitzua eskaini eta pazienteari mina eta sufrimendua saihesteko, sedazioarekin egiteko aukera dago, endoskopiak edota biopsiak, esaterako.

Zearretak aurreikusten du min kronikoen unitatean ere gero eta funtzio gehiago hartuko dituztela anestesistek; izan ere, ikerketak asko ari dira aurreratzen esparru horretan eta teknika eta farmako berriak min kronikoak dituzten pazienteen bizi kalitatea hobetu dezakete.

Bokazio bihurtu duen lanbidea

Zearretak dio oso espezialitate konpletoa dela berea. Medikuntza ikasi zuenean, ez zuen “anestesia” izeneko ikasgairik. Dena den, eta karreran ezezagun samarra bazen ere, espezialitate horretako profesionalen falta zegoela eta haren alde egin zuen Zearretak. Eta ez da inoiz damutu. Orain medikuntza berriz hasteko esango balioke eta espezialitatea erabakitzeko aukera izango balu, berriz ere anesthesiaren alde egingo lukeela dio ziurtasunez.

Izan ere, erantzukizun handiko profesioa da berea. Hala, Zearretak kontatu du gertatu ohi dela guardian deskantsatzen egotea, lasai-lasai, dei bat jaso eta bat-batean bere bizia jokoan duen pertsona bat artatzera joatea. “Gorputza bere

Inaxio Zearreta Letamendia

- **Adina:** 45 urte.
- **Ikasketak:** Medikuntza ikasi eta anestesia espezialitatea aukera nuen gero.
- **Lanbidea:** Anestesista.
- **Anestesista ez banintz...** irakaslea izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** aire zabala gozatzea: mendiaz, hondartzaz, paseoez.... Horrez gain, Zumaiako Futbol Taldeko entrenatzailea naiz, eta horrekin ere asko gozatu eta deskonektatzen dut.



kabuz jartzen da alertan adrenalina sortuz, eta egoerari konponbidea ematen saiatzeko berehala erantzuten duzu, ikasitako guztia eta urteetan metatutako esperientzia praktikan jarritz”.

Zearretak dio, hain zuzen ere, bere lanaren alderdirik ederrena estres eta zailtasun handiko momentu horiei ondo erantzuten duenean bizi duen sentazioa dela: “Egoera larri eta konplexuei arrakastaz aurre egiten zaienean sentitzen den poza ikaragarria da”. Kontrara, ordea, baditu bere ofizioak alderdi kaskarrak ere eta Zearretarentzat

okerrena da senideren bati albiste txarren bat eman behar zaionean.

Dena den, kasu guztietan, eder zein txarretan, ekipo on bat alboan izatearen garrantzia azpimarratu du. Talde on bat osatzeko, berriz, ezinbesteko ikusten du profesional bakoitzak bere funtzioa izatea eta lanaren parte sentitzea. Izan ere, ez da ahaztu behar ekipoko profesional guztiek ahalegin bateratua egiten dutela, eta helburu bakar bati begira lan egiten dutela denek beti: pazientearen ongizatea. ■

denda:
Mendaro marinela, 1
tel.: 943-14 33 46

biltegia:
Jose M^a Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943-86 11 17
fax: 943-86 13 30

**industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak**

BALEIKE KLUBEKO ZOKKETAK



Itzurun taberna: Lorea Zabaleta



Yoana ileapaindegia: Idurre Lazkano



Gaindituz: Imanol Manterola



Mandala: Haizea Odria (argazkian),
Asier Etxaniz, Kontxi Aizpurua, Mari
Carmen Larrañaga eta Leire Arano

URRIAK 8

Breaking
Brokkoli
taldearen bi
disko.

URRIAK 15

Yoana ile
apaindegia: ilea
garbitzea eta
moztea.

URRIAK 22

Ongizan: fisioko
bi bono.

AZAROAK 5

BQD bidaiak: bi
bono-pack.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

YOANA ILEAPAINDEGIA: Hilean behin zozketa, ilea garbitu eta orraztu.

ANTZERKIKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba


E-mailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45



Beldar goSetia

Zenbat hosto jango ditu beldarrak bere kuskuan sartu aurretik? Horixe jakin nahi baduzu, beldarra dagoen tokitik abiatu eta, hostoz hosto, kuskuraino heldu behar duzu, ezkerrera, eskuinera, gora edo behera mugituz (sekula ez, diagonalean).



Gameluaren itzala

Zein da, zortzi itzal hauen artean, erdian dagoen gamelu xeblebreari dagokiona ?



zazpiKoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden zazpi diferentziak.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

garay manufacture

1989tik sukalde altzarietan lanean

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olabidea aldea 1 (Errotaberi Industrialdea)
20.800, **ZARAUZ** 943 13 31 09

www.garay.eus

GUK
DISEINATU ETA
EKOIZTUTAKO
SUKALDEAK

Braky's
Okidegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tl.: 943.57 07 79
Móvil: 649 96 72 89

Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumala, Gipuzkoa
T. 943.143.057

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

www.eduoptika.com

RPS 18/16

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
Ekinologia, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943-14 30 57
ekin@ekin.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓVIL**

ERNTIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendato marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garroa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

goiko bodegoia

Erribera, 9 - 943-86 13 91

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumala
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

BOIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

Zer da katarro arrunta?



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Udazkenak aurrera egin ahala, tenperatura jaitsi eta eguraldia kaskartzen denean, gorputzaldia ere makaldu egiten zaigu eta sarriago izaten ditugu eztula, mukiak edo buruko karga. Askotan, sintoma batzuk antzekoak direlako, ez dugu ondo bereizten katarroa edo gripea ote den, baina komeni da ondo bereizten jakitea. Gaurko atal honetan katarro arruntari buruz hitz egingo dizuet. Zer den eta zer egin dezakegun behar bezala sendatzeko. Hurrengo atalean gripearri buruz hitz egingo dizuet.

Zer da katarro arrunta?

Katarroa birus batek eragiten duen arnasbideen infekzio arin bat da. Normalean hauek eragiten ditu: mukieria, sudur buxadura, buruko mina, eztarriko mina, malko jartoa, eztula eta sukar pixka bat. Hala ere, egun gutxiren buruan tratamendurik gabe sendatzen da. Eztulak, batzuetan, egun gehiago ere iraun dezake.

Ez dago hotzeriaren aurkako txertorik eta antibiotikoek ez dute hotzeria sendatzen, eragilea birusa delako eta ez bakterio bat. Ohikoa izaten da

urtean zehar zenbait katarro harrapatzea.

Zer egin daiteke?

Txertorik ez dago eta tratamendu zehatzik ere ez sendatzeko, baina zenbait aholku eman ditzakegu katarroa arinago pasatzeko. Adibidez:

- Erabilera bakarreko musuzapiak erabili, paperezkoak.
- Eskuak sarri garbitu urarekin era xaboiarekin, ingurukoak ere kutsatzea saihesteko.
- Eztul edo doministiku egiten duzunean, sudurra eta ahoa ondo estali. Onena besoaren barrualdearekin ukondorantz egitea da.
- Ez erre.
- Analgesikoak edo antitermikoak har ditzakezu buruko mina edo sukarra arintzeko.
- Eztarria gehiago ez narritatzeko, saiatu eztulik ez egiten eta eztarria ez

EZ DAGO HOTZERIAREN AURKAKO TXERTORIK ETA ANTIBIOTIKOEK EZ DUTE HOTZERIA SENDATZEN

garbitzen, mukositatea kentzeko ez bada, behintzat.

- Azukrerik gabeko karameluak har ditzakezu. Ez da gomendatzen eukaliptodun eta mentadun karameluak hartzea, eztarria gehiago narriatuko luketelako.
- Seruma edo ura gatzarekin jar dezakezu sudurrean, berau desestaltzeko.
- Beste gaixotasun batzuetarako medikamenturik hartzen baduzu, horiek hartzen jarraitu.
- Etxea egunero aireztatu.

Normalean, katarro arrunt bati aurre egiteko ez da medikuaren laguntzarik behar. Egun batzuk nahikoa izaten dira gaixoaldia gainditzeko. Baina zenbait kasutan familiako medikuarengana jotzea ezinbestekoa da.

Noiz galdetu behar diozu zure familiako medikuari?

- Beste gaixotasun kroniko batzuk badituzu eta okerragotzen badira.
- Adierazi ditugun sintometatik ezberdina den besteren bat baduzu.
- Hotzeriak 10 egun baino gehiago irauten badu.
- Sukarrak (38° C baino gehiago) bi egun baino gehiago irauten badu. ■■■

PUBLIZITATEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriando optika
Kantauri plaza, 8. Zumaia, tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia, tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS
Ikuskizun orotarako sainu
eta argiztapen alokairua
Hotz eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ ILEAPAINDEGIA
San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



JUARISTI
jatetxea
Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatu
Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



ORRAZTEGI ZUMAI A
943-86 20 83



K&BI Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27
TABERNA



Kaithermik S.L.
Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalari
Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17



kuttun
lentzeria
erribera kalea tel. 943-11 79 36



LABARRA TABERNA
ZUMAI A
est. 2016
Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



malaia



CROISSANTERIA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
Marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK
Etengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)
Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar Indutrigunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com

Bullying-a saihesteko, lagunarteko elkarbizitza



IZAR ARREGI

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Gizakiok beti izango ditugu gure harremanak, eta lagunartean beti gertatzen dira gorabeherak. Maitasun kontuetan ere gertatzen da. Bikoterik gabe, bikote arazorik ez; lagunarteko arazorik ez izateko, lagunik ez izatea... Hori bai benetako arazoa. Gizaki sozialak gara eta besteek gu onartzeko premia daukagu.

Egia da zenbaitetan arazo larriak gertatzen direla eta izaten direla bullying kasuak. Intentsitate handiko gorabeherak daudenean, arazo larriak, beldurra dagoenean, ondorio sozialak daudenean eta arazoa denboran asko luzatzen denean (sei hilabete baino gehiago), orduan pentsa dezakegu bullying egoera baten aurrean gaudela.

Baina kasu gehienetan, gure seme-alabek izaten dituzten gorabeherak arruntagoak dira, ez dira hain larriak. Lagunarteko korapilo piloa izan ditzakete, baina dena ez da bullying (bullying-ari buruz hurrengo batean hitz egingo dugu) Arazoa izaten da askotan gurasook muturra sartzen dugula, gure arazo bihurtzen ditugula. Eta ez. Gure seme-alaben lagunarteko arazoak beraienak dira. Guk lagundu egin behar diegu, baina beraiek konpondu beharko dituzte.

Arazoak, azken finean, bizitzarako entrenamendu bat dira. Abilidade sozialik ezin da garatu lagunartean ibili gabe. Arazoen aurrean ikusten da pertsona nolakoa den, lotsatia edo oldarkorra den, baina entrenamenduarekin ikaragarri meioratzen da lagunartean ondo moldatzeko gaitasuna, estrategia berriak ikasten direlako.

Lau edo sei urterekin, kontakatilu bat izatea estrategia ona izan daiteke; adin horretatik gora, agian ez da hain estrategia ona, lagunak benetan haserretuko zaizkiolako. Mutil batek arazo baten aurrean beti pailazoarena egiten badu, agian ondo aterako zaio, despistatu egiten du arazoa; baina 11 urterekin estrategia berberarekin segitzen badu, ordurako gelako pailazotzat hartuko dute besteek. Estrategia baldin bada beti isilik gelditzea, hasieran balioko dio, baina luzera begira besteak aprobetxatu egingo dute...

Zein da soluzioa? Estrategia berriak ikastea. 11 urteko ume

**SEME-ALABEK
LAGUNARTEKO
KORAPILO PILOA IZAN
DITZAKETE, BAINA
DENA EZ DA BULLYING**

batek estrategia asko dauzkanean, oso lagungarria zaio gorabeheretatik ateratzeko. Horrek ez du esan nahi gatazkarik izango ez duenik, baina haiek kudeatzen ona izango da. Beraz, berritsua baldin bazara, ikasi gutxiago hitz egiten; pailazoarena egiten ona zarela? Bada, ez tematu beti horrekin... Egoera bakoitza aztertu eta jakin behar da estrategia egokiena aukeratzeko. Batzuetan atezain, bestetan atzelari edo aurrelari... Hori da lagunarteko arazoei aurre egiteko modua.

Eta nola ikasten dira estrategia horiek? Bada, lagunartean ibiliz, eta besteek zer egiten duten aztertuz. Lotsatia bazara, ikusi nola moldatzen den zu bezain lotsatia ez den lagun bat; berritsua bazara, begiratu zer egiten duen zu baino pixka bat isilago denak, noiz isiltzen den, horrekin zer lortzen duen...

Eta gurasook zer egin dezakegu? Gurasook egin behar duguna da egoerak aztertzen lagundu, eguneroko bizitzan gertatzen zaizkion arazo horiek baliatu bere burua ezagutzen laguntzeko, bere sentimenduak ateratzen laguntzeko, guk geuk txikitan izan genituen arazoak nahasi gabe.

Azken finean, umetan lagunarteko estrategiak ikastea oso garrantzitsua da gero bizitzan ondo moldatzeko. ■




Gure mendien sorrera, arestiko klimaren laborategia

Iluna dago. Hotz. Apenas daukagu mugitzeko lekurik. Uraren tantaketa besterik ez da entzuten: tan, tan, tan, tan... Geoparkearen bihotzean gaude, kobazulo sakon baten barruan. Hemen dago gure mendien garapena ulertzeko giltza. Hemen barruan dago hor kanpoan gertatu denaren erantzunaren zati handi bat.

Testua: **Asier Hilario / Geologian doktorea eta Geoparkeko zuzendari zientifikoa.**

Argazkiak: **Euskal Kostaldeko Geoparkea.**



Euskal Kostaldeko Geoparkea eremu menditsua da, kostaldetik gertu dagoen lurralde malkartsua. Hor daude Andutz, Arno edo Sesiarteko tontorrak, 600 metro baino gehiago altxatzen diren talaia pribilegiatuak. Horien magaletan ezkutatzen dira baserriz ornitutako Lastur, Olatz edo Astigarribiako bailara itxi eta ezkutuak. Hori da gure egungo paisaia, azken 5 milioi urteetako garapena eta klima ulertzeko informazio gordetzen duen altxorra.

Noiz eta nola sortu ziren gure mendiak? Noiztik du gure lurraldeak egun ezagutzen dugun itxura? Adi, milioi bat urte bakarrik atzera egingo bagenu, ez genuke gure lurraldea ezagutuko.

Mendien sorrera ulertzeko hiru etapa aztertu behar dira beti:

- 1) **Arroken sorrera.** Zer arrokak osatzen dute mendi hori? Non, noiz eta nola sortu ziren? Arroka mota desberdinek erliebe desberdinak garatzen dituzte.
- 2) **Arroken deformazioa.** Arroka horiek tolestuta edo pitzatuta daude? Noiz gertatu zen deformazio hori? Zergatik? Sortutako egitura nagusien norabideak (tolesak, fallak, pitzadurak...) higadura guztiz baldintzatuko dute. Arroka bat errazago higatzen da pitzatuta dagoenean.
- 3) **Arroken higadura eta paisaiaren bilakaera.** Noiz, nola eta nork higatu ditu arroka horiek egungo paisaia sortzeko? Euri-urak? Haizeak? Izotzak?



Gure mendien euskarria fosilez beteriko kareharriek osatzen dute. Zehazkizun handiagoz begiratuko bagenu, begibistaz erraz ikusiko genituzke koralak, ostreidoak, errudistak edo belakiak. Kareharri horiek duela 110 eta 100 milioi urte (Mu) bitartean sortu ziren

Gaur egungo itsaso tropikalen antz handia izango zuen gure kareharrien sorleku izan zen itsaso hura.

Behe Kretazeoan Geoparkearen kokapena.

Lasturreko harrobian duela 100 milioi urteko koral arrezifeak ikusten.

Koral fosil bat bibalboez inguratua.



Euri urak kareharrizko masa jarraiak disolbatzean sortzen dira konoak eta sakonuneak. Higadura mota hau gaur egun Vietnamen, Txinan edo Thailandian ikus daiteke, klima subtropikaletan.

Astigarribiako konyak

sakonera txikiko itsaso tropikal batean. Aldi berean, baina sakonera handiagoan, Deba eta Mutriku artean ikus daitekeen flysch beltza sortu zen. Behe Kretazeoko itsaso tropikal horretan sortu ziren Euskal Herriko mendi nagusi gehienek eratzen dituzten kareharri gogor eta potolo hauek, hala nola: Izarraitz, Hernio, Txindoki, Aizkorri edo Anboto.

Iberia plaka mugitu egin zen eta itsaso tropikal hura ixten

hasi zen Penintsula Europarekin talka egin zuen arte. Poliki-poliki gertatu zen Pirinioak eta Euskal Mendiak altxatu zituen talka erraldoi hura. Gure inguruan duela 40 bat milioi urte hasi zen, eta indarra galduta badu ere, oraindik altxatze mugimenduak nabari daitezke. Oso astiro gertatzen dira mugimendu horiek, urtean milimetro bat baino gutxiago, baina indarra ikaragarria dute. Horren adibide dira lurrikarak edo Sesiarten ikus daitekeen bezala, mendiak tolesteko gaitasuna.

Hirugarrena da erliebea eta mendien itxura ulertzeko etapa garrantzitsua. Higadura. Gurean bi faktore dira gako nagusiak:

1) Euri ura begetazioarekin nahasten denean azidotu egiten da eta kareharrietako kaltzio karbonatoa disolbatzeko gaitasuna dauka. Horrela sortzen dira kobazuloak eta karst izeneko paisaiak.

2) Itsasoarekiko gertutasunak guztiz baldintzatzen du gure klima euritsua eta mendien morfologia.


Gure mendi gehienek kono itxura dute. Tontorren altuerak neurtzen baditugu konturatuko gara talde desberdinetan multzoka daitezkeela. Kostaldetik abiatuz 125 m, 200 m eta 310 m-tara kokatzen dira tontor gehienak. Kareharrizko muino isolatu horien

taldekatzeko horrek adierazten digu multzo bakoitzak, iraganean, kareharrizko masa jarrai batean izan zuela oinarria. Kareharriak itsasotik azaleratu zirenean masa jarrai eta horizontal baten itxura izango zuten, gaur egungo zabalgunearen antzekoa. Poliki-poliki begetazioak kolonizatu eta euri urak kareharrizko masa hori disolbatzen hasi zen sakonuneak (Olatz, Lastur, Astigarribia edo Ziñoako bailarak) eta konoak (mendiak) sortuz. Disolbatze prozesu horretan zehar konoen barruan kobazuloak sortu dira eta horien galeriak lerrokaturik daude maila eta altuera konkretuetan ere.

Hiru multzo horiek edierazten dute altxatze prozesua ez dela lineala izan eta hiru pultso desberdinetan gertatu dela. Hori guztia noiz gertatu zen jakiteko, disoluzioak kobazuloetan sortutako egiturak aztertu behar dira. Uranio/ Torio isotopoak erabiliz, adibidez, tantan tanta hauspeatutako espeleotema ezberdinen adina jakin daiteke. Kobazuloen barruan aurkitutako metakin flubialak aztertuz jakin dezakegu noiz pasa izan zen azkenekoz erreka bat galeria maila horretatik. Gaur arte ditugun datuekin esan daiteke 310 m-ko erliebeak sortu dituen zabalgunek hura duela 5 Mu inguru azaleratu zela itsasotik, 200 m-ko erliebeak sortzen dituen (Salbatore) duela 2 Mu eta 125 m-koak (Praileaitz) duela 1 Mu (Aranburu et al, 2015).

Esan dezakegu, beraz, duela 5 Mu gure mendiak ez zutela gaurkoen antzik, paisaia guztiz desberdina zela eta bailarak eta sare hidrografikoa ere ez zela gaur ezagutzen duguna. Eta horrek guztiak, paisaiaren bilakaerak, klimaren eboluzioarekin erlazio zuzena du. Tantaketaren isuria, erreken emaria, begetazioa, itsasoaren maila eta abar, dena dago klimarekin lotua eta informazio hori guztia kobazuloetan gordeta dago.

Barrurago badaude mendi altuagoak eta zaharragoak, baina hori beste historia bat da. ■■■



Kostaldetik gertuen dauden maila desberdinen altxatze modeloa.



Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak
Lore-zentruak, Koroak
Landare naturalak eta artifizialak
Zermika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua!
Santiago auzoa, 18
Tel. 943 862 611

Albergak, faltaren oroimina



TESTUA: IMANOL AZKUE

Inguruko gazteei galdetuz gero, seguru asko gutxik asmatuko dute zuzen erantzuten, baina di-da begiratuko dizute mobilean zer den, Interneten den-dena dagoelako, eta, igual, baten batek esango dizu, ausart, lotarako eraikina (albergea) dela.

Nik gure orojakile nagusiari (Googleri) galdetu diot, “Zumaia alberga” sartuta, baina gaztelaniazko testuak baino ez dizkit erakutsi (“Zumaia alberga algunas de las formaciones y ecosistemas...”), eta Interneteko beste leku batzuetan begiratu behar izan dut gure albergen arrastoak ateratzeko. Horrela, baieztatu dut arabieratik eratorritako hitza dela (hain zuzen ere, “alberca”-tik), eta ur putzua esan nahi duela; eta ahotsak. eus-en egiaztatu dut “alberga” hitza nahikoa arrunta dela inguruko beste herri batzuetan ere, ez dela Zumaiakoa bakarrik.

Gurean, ordea, albergak ura gordetzeko eraikinak baino zerbait gehiago dira: arropak garbitzeko lekuak. Izan ere, lehen ez zegoen garbigailurik etxeetan eta arropa kanpoan garbitzen zuten; baina egon, duela hamarkada batzuk arte etxeetan ez zen egoten urik ere, eta behar zena kaleko


iturrietatik eramaten zuten. Arropa garbitzeko lekua errekarren edo ibaiaren bazterrean egoten zen, edo, bestela, iturburu baten ondoan; han, gehienetan, ura biltzeko depositu bat egoten zen, eta alboan, aska (animaliek edateko) eta alberga, harri zabal leunekin (arropa garbitzeko). Adibide polita da Sanjuaniturrikoa: ura Santiago (Karakas) aldetik eramaten zuten hara, eta erabiltzen ez zen iturriko ura eliz atariaren ondoko depositu batean biltzen zuten, eta handik beheko albergan aprobetxatu, arropa garbitzeko. Madalena Egañak “Zumaia ahotsak”¹-en kontatzen duenez, iturriarekin zen: “Norberak nahi zuen adina aska bete, jabonadura harekin egin eta gero, irteterako, berriz ere garbia jarri”; Madalenen arabera, kanpoko marinela ere joaten ziren, Laredokoak-eta, emakumeak erretiratutakoan, garbitzera, bizarra egitera... Arritokieta Manterolak xehetasun gehiago ere baditu gogoan, webgune bereko grabazio batean: 11 aska zeuzkan, eta Patxi *Barrandero* zain egoten zen emakumeak noiz alde egingo, eskoba latzarekin egunero pasatzeko askak. Txikitako oroitzapen bat datorkit burura: Pakita *Porraja* San Telmo kalean gora, pausoa mantso eta tente, buru gainean zinka bete arropa garbituekin, ermitarako bide bazterreko



Argazki honetan ederki ikusten dira beheko alberga

sasitzan arropak lehortzen jartzera.

Zumaiaiko artxiboan sarritan aipatzen dira *lavaderoak* (eta tarteka *alberga* ere bai), gehienetan garbitu edo teiltatua konpondu beharra zegoelako, eta aipamen zaharrenetako bat 1787koa da, Ardantzakoarena. Alberga horietako batzuk ezagutu ere egin ditugu XX. mendean. Besteak beste, herrigunean zeuden goiko alberga (orain udaletxearen dorrea edo artxiboa dagoen lekuan, 1869an eraikia), behekoa (Ardantzabideren



(ezkerraldean) eta goikoa (eskuinean). ZUMAIKO UDALAREN FOTOTEKA

hasieran, 1889an eraikia), Arroakalean (Iturrikoa baserriaren ondoan) eta Estazio aldean (Zubiberriaren eta biribilgunearen pare horretan, 1915ean eraikia). Oikian ere baziren garbilekuak; plazan bertan zeuden depositua, iturria, aska eta alberga, eta Mantzizidorko (*Mantziorako*) zubi ingurura ere joaten ziren arropa garbitzera, han ere bazeudelako harri lauza egokiak, Urola ibaiaren ertzean, Zentralaren ondoan edo Zubitxon. Arropa garbitzeko lekuak izateaz gain, ordea, albergek



Emakumeak arropak garbitzen goiko albergan. ZUMAIKO UDALAREN FOTOTEKA

PUBLIZITATEA

ETXEBUNTZA
OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 04 01 55
686 91 12 57
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitekto-tura
943-14 30 93
tur@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Fabrika
Telakak
Etxebizitzak
(Sukaldeak, bainugelak)
Industrien marlinmendak
Mota guztietako igiterotza lanak

Etxebizitzaren inspezio teknikoak (ITE)
Zerbitzatu energetikoak
Fabriken diseinua eta aholkularitza
Etxebizitzaren berraketa
Mota guztietako proiektuak

OSA
BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortzi Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beabide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezaretara, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Tapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA

Izurtari, 3
tel. 943-86 52 89

TXALAPARTA
OPARIK

Angeles Sorozua, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-14 30 89
faxa 943-43 00 37

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kadilloa)
Saltxitxak, oilaskoak...
Garagardok-dukera

Ondartza plaza, 4 behean Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

Xanti
ALTZARIK

Amalaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtziariak.com

yoana
ileapaindegia

Amala plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla
taberna

• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urtia Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax 94301 61 26

bazeukaten beste funtzio bat: sozializatzeko eta harremanetarako elkarguneak ziren, horietan elkartzen zirelako emakumeak (etxeko lanak egiten zituztenak), eta arropak garbitu bitartean zenbat kontu, esamesa, iritzi, eztabaida, poz, haserre..., eta kantuak ere bai, lana eramangarriagoa egiteko. Bitxikeria bat: “Pulpoko alberga” deitu izan diote batzuek elkartearen aurreko eserlekuari (Saregile plazan), arropak garbitzeko ez, baina hizketarako eta herriko kontuen berri jakiteko elkargune egokia zelako.

Gaur egun, beste albergarik ez daukagu Zumaian, baina ezin esan desagertu egin zirenik; aitzitik, aurrerabideak bota zituen, ustez ez zutelako ezertarako balio, XX. mendearen amaieran eta XXI. aren hasieran. Zumaiaiko goiko alberga dela eta, bi testu polit aurkitu ditut *baleike* zaharretan: batean, 2001ean, honela zioen Belen Golmaiok: “Eta [goiko alberga] hauxe bakarrik geratzen zaigula ikusita, ez al litzateke egokia izango alberga hau ondo-ondo txukundu eta kontserbatzea, garai bateko ohitura eta bizimoduaren lekuko izateko? Berez politta eta batzuetan zikin xamarra egoten den inguru horrek ere asko irabaziko luke, eta guk, ia ahaztua daukagun ‘alberga’



Beheko albergako depositua, negar istilak ere ikusten zaizkiola.



Aresoko garbitegia. Oso bitxia da, oktagonoko forma daukalako. WWW.GUIAILUSTRADADENAVARRA.COM-ETIK HARTUA

hitza erabiltzen jarraitzeko aitzakia edukiko genuke”²; lau urte geroago, Inazio Tolosak okerrena egiaztatu zigun: “Goiko alberga zaharra bota dute, nire esperantza tontoak, konpondu eta historiaren testigu mutu bezala utziko zutela esaten zidan, baina nonbait halako testiguen ez dute merezi gordetzea, ez dira etorkizunari eman behar diegun eredua, hobe kanoiak eta antzekoak, baina alberga konpondu eta halakoak tira, tira... Gainera, emakumeen kontuak dira horiek eta badakizue... emakumeen historia ez da ia existitzen”³. Beheko albergari, berriz,

Telefónicaren eraikinak jan zion pusketa bat, lehenengo, eta hura bota behar zutenean eraitsi zuten, ondoren.

Joango gara beste herri batzuetara, ikusiko ditugu hango albergak, txukun eta ondo zainduta (erabiltzen ez badira ere), eta a zer inbidia, a zer hutsunea gurea... ■■■

¹ www.ahotsak.eus webgunean ikusgai.

² *Baleike*, 2001eko maiatza, 83. zenbakia. “Goiko alberka”, Belen Golmaio.

³ *Baleike*, 2005eko maiatza, 133. zenbakia, “Lehenengo munduaren azkenak”, Inazio Tolosa.

KULTURA

Sakeleko Zinemaldia

ZINE FORUMA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Irailaren 29an amaitu zen aurtengo Donostiako Zinemaldia. Jaialdiak iraun zituen bederatzi egunetan izan zen jatorri anitzeko zineaz gozatzeko aukera. Orain herrietako zine klubek hartuko dute bide komertzialetik at dauden pelikula hauek erakusteko ardura.

Zumaiaiko Ostarrena Zine Klubak urriaren 11n hasiko du 2018/2019 zine forumaren denboraldia. Udazkeneko lehen txanda honetan sei pelikula emango ditu Aita Mari zinean. Saioak 22:00etan hasiko dira.

Hasteko, urriaren 11n, Agnes Vardak eta JRk zuzendutako *Visages, villages* pelikula bitxia emango dute. Biak herriz herri joango dira furgoneta berezi batean. Vardak 88 urte ditu, eta JRk 33. Azken honek argazki estudio bat paratu du furgonetan, eta horretan bidaiatuko du bikoteak. Herrietara heldu, eta biztanleak furgonetara gonbidatuko dituzte. Barruan, argazkia egin, eta formatu handian aterako dira irudiak furgonetaren albo batetik. Herriak apainduko dituzte, gero, herritarren erretratuekin.

Urriaren 25ean John Carroll Lynchen *Lucky* film estatubatuarren txanda izango da. Lucky 90 urteko gizon ateo bat da. Lagun guztiak baino gehiago iraun du,



El capitan pelikulako fotograma bat.

eta bizitzaren azken atalean dago. Bidaia bat abiatuko du, bere burua aurkitzeko eta bizitzaren zentzua ulertzeko. Harry Dean Stanton aktorearen azken filma da hau. Travis pertsonaiarekin egin zen ezagun Stanton, 1984ko *Paris, Texas* filman.

Robert Schwenkeren *El capitan* pelikula emango dute azaroaren 8an. Bigarren Mundu Gerraren amaieran, Hirugarren Reich-aren eroraldi betean girotuta dago pelikula: kapitain nazi baten uniformea lapurtuko du 19 urteko soldadu zarpail eta gosetu batek. Desesperazioak jota, etsaiekin bat egingo du, bizirik irauteko modu bakar gisa.

Sirian girotutako *Alma mater*, Philippe Van Leeuw

zuzendariaren pelikula, izango da azaroaren 22ko saioan. Oum Yazan hiru haurren ama da, eta etxea harrapatuta dago, setiopean dagoen hiri batean, Sirian. Babesleku bihurtu du etxea, bere familiarentzat eta auzokoentzat, gerratik libratzeko. Baina frankotiratzailak patioetara tiro egiten dabiltza, eta lapurrak etxeetan sartzen ari dira. Eguneroko bizitzari eusten saiatuko da.

Amaitzeko, abenduan beste bi pelikula emango dira. Hilaren 13an Sean Bakerrek zuzendutako *The Florida Project* sariduna ikusteko aukera izango da; abenduaren 27an, berriaz, Ari Aster zuzendariaren *Hereditary* beldurrezko filma. ■■■

AGENDA

ERAKUSKETAK

IRAILAK 28-URRIAK 19

Harriak-*Lo que tú ves no es lo que veo yo.*

URRIAK 25-AZAROAK 11

Christiane Von Enzberg.

DEIALDIAK

URRIAK 20-22

Asteburu Mikologikoa.

URRIA

10 ASTEAZKENA

Meditazio saioa, Guneren eskutik.
Forondan, 19:30ean.

11 OSTEGUNA

Zine forum: *Visages, Villages*, JBA.
Zuz.: Agnès Varda, JR.
Aita Marin, 22:00etan.

12 OSTIRALA

Itsasotik Herrira: Kofradian
erakusketa, Beduolako bateleroen
erakustaldia, Olagarro irteera gidatua



17 ASTEAZKENA

Dokumentala: *Kantaurialdea*.
Aita Marin, 19:00etan.

eta Bufalo taldearen kontzertua
Arratsaldean.

19 OSTIRALA

Antzerkia: *Txarriboda*, Hika Teatroa.
Aita Marin, 22:00etan.

20 LARUNBATA

Irteera: Perretxikoak biltzera.
08:00etan.

21 IGANDEA

Erakusketa mikologikoa.
*Oxford aretoan, 11:00-14:00 eta
17:00-20:00.*

Antzerkia haurrentzat: *Inondik
inora*, Benetan Be.
Aita Marin, 12:00etan.

23 ASTEARTEA

**Zumaiaiko Emakumeen Etxea
eraikiz**, 2.saioa.
Oxford aretoan, 18:15etan.

24 ASTEAZKENA

Solasaldia: *Erljioek ba ote dute
oraindik zer eskaini?*
(Xabier Aierdi).
Forondan, 019:30ean.

25 OSTEGUNA

Zine forum: *Lucky*, JBA. Zuz.: John
Carrol Lynch.
Aita Marin, 22:00etan.

27 LARUNBATA

Bodyboard Federarte Fest.

30 ASTEARTEA

III.Berdintasun Plana, diseinatzeko
saioa.
Oxford aretoan, 18:00etan.



Probatu entrenamenduak
Astelehen eta asteazkenetan
9:00, 19:00 eta 20:00etan

Kalefit Zumaian

**PROBATU
NAHI BADUZU**
Jarri zaitez gurekin harremanetan

688 61 09 32 · www.kalefit.com

Instagram YouTube Facebook



Zumaia Hotela
*Jatetxea
Kafetegia*

Atari euzategia · 20750 Zumaia · tel. 943-14 34 41 · faxa 943-86 51 61

Kurduen berri badugulakoan



UDA BATEZ KURDISTANEN

Egilea: Zekine Turkeri
Argitaratzailea: Elkar
Argitaratze urtea: 2018
Orrialdeak: 140
Generoa: kronika



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Irakurtzeak badu gauza bat zor, gure ezjakintasuna agerian uzten duela. Hala gertatu zait, beste behin, liburu hau irakurri dudanean, eta, hala, aspaldiko pasadizo bat ekarri dit gogora.

2000. urtea izango zen Nizan mundu mailako agintarien goi bilera bat izan zela; bertan, politika neoliberalaren aldeko neurri ugari hartu zituzten, eta kaleetan milaka herritarrek beren desadostasuna adierazi nahian zebiltzan. Europa osotik batu zen jendea, baita Euskal Herritik ere, eta halako manifestazioa antolatu zen, non antolatzaileek herrialdeka antolatzea erabaki zuten. Lehenik, frantsesak; ondoren, alemanak; etab.,; eta hara non euskaldunoi ez ziguten manifestazio hartan parte hartzen utzi nahi, terrorismoa goratzen omen genuelako. Ez ginen baztertutako bakarrak, ordea, gure aldamenen kolore

biziz jantzitako beste hamaika lagun baitziren, haiek ere “terroristak”; PKK-ko kideak ziren, kurduak.

Gogoan dut orduan aldamenen nuen lagun batek nola esan zidan, “Hauek ere gu bezala zeudek!”.

Zenbat gogoratu naizen esaldi harekin liburu hau irakurtzen nuen bitartean. Ene! Zeinen ezjakinak garen!

Benetan Kurdistanen buruz zerbait nekiela uste banuen, Zekine Turkeri idazle kurduaren liburuak argi utzi dit arrastorik ere ez daukadala.

2014ko udan Irakeko Kurdistanera egindako bidaia du oinarri liburu honek,

**KURDISTANI BURUZ
ZERBAIT NEKIELA USTE
NUEN; LIBURUAK ARG
UTZI DIT ARRASTORIK
ERE EZ DAUKADALA**

Saddam Hussein kanporatu ostean lurralde horrek autonomia zabala bereganatua duenean, kurduak beren buruaren jabe nola moldatzen diren ikusteko egindako bidaia. Alabaina, bera han dela Estatu Islamiarraren ofentsiba hasiko da, eta hasierako asmoak aldatuta, gerrako erreportaje sorta bat egin beharko du idazleak.

Munduko minoria nazional handienak bizi duen egoera lazgarriaren berri ematen digu Zekine Turkeri, baina, batez ere, bere bizinahiaren berri.

Euskal Herria baino hamabost aldiz handiagoa da Kurdistan, eta lau estaturen artean dago zatitua, Turkia, Siria, Irak eta Iranen artean. Gu bezalaxe, hain zuzen!

Portzierto: Italiako komunisten eskuzabaltasunari esker, euskaldunak eta kurduak elkarrekin parte hartu genuen Nizako mundu mailako manifestazio hartan. ■

Ez dakit, ez nago seguru



OLATZ ERDOZIA IBAÑEZ

Donostiarrak normalean zer joaten zarete, Urbilera ala Garberara?”. Horixe Zumaiako kultur etxean lanean hasi eta solaserako gai erraza eman nahian egin zidaten galdera. Eta ni: “Ba, ez dakit, ez nago seguru, tira, neroni ez batera ez bestera, ez nuke jakingo esaten jende gehienak zer egiten duen, ba, segun, auzoaren arabera agian...”. Eta neure artean, bitartean: ‘Kaka zaharra! Harrapatu naute hauek ere, honezkero badakite 1) ez naizela normala, 2) ez daukadala ezeri buruzko iritzi sendo, eta azkarrik, 3) ez naizela gai erantzun ximple bat emateko, eta bueltaka hasten naizela erantzun zuzenenaren bila, parekoak berriketarako aitzakia besterik nahi ez badu ere”.

Ez dakit nik zertan dabilzan *Baleikekoak*: iritzi tinkoak, are sutsuak dituen jendez betetako herrian, iritzi zutabe bat idaztea nori proposatuko eta zalantziati honi? Kulturari buruz, gainera?

Egia esan, ez dut galdetu nolatan proposatu didaten. Kultur arloan lan egiteak

emango zizkidan puntu batzuk, zumaiarra ez izateak kanpoko begirada baten ilusioa, ikusi izan naute kontzertuetan, edo pelikula korearretan, baina aitor dezagun, errurik handiena antiojoek eta ile zuriak izango zuten. Ez al naiz, ba, kulturzalearen prototipoa? Bidaia batean jabetu nintzen, Toulousen. Joan nintzen filmotekara, klasikoren bat ikustera, eta aretoan denak nire bikiak! Emakume betaurrekodun ile zuriak ginen ia guztiak! Hori, beraz, film klasikoekin gozatzen dugunon espektroa. Irakurzaleak ere halakoxeak omen gara, neurri handi batean. Eta antzerkira goazenak. Hori bai: ilea gorritz tindatzen dutenen aldaerakoak gehiago, gurean hori izan baita espezie nagusia, oraintsu arte.

**PROTOTIPOA BETE-
BETEAN EMATEN DUT,
BAINA, AZKENALDIAN
EZ OTE DEN IRUDIA
GEHIAGO MAMIA BAINO**

Prototipoa bete-betea ematen dut, beraz; baina, hortxe koxka, azkenaldian ez ote den irudia gehiago mamia baino. Jabetuta bainago ez naizela lehen bezainbat sartzen liburutetan, kostatzen zaidala aurrera egitea. Liburu mehe-meheak erosten hasi naizela, liburu amaitu berria ixteak ematen duen gustu horri behintzat eusteko. Zuzendari baten izena entzun eta ez naizela gai haren azken hiru pelikulak botatzeko, ez baititut ikusi, ez baitut ikusteko bulkada hori sentitu.

Eta kezkatzen nau. Ez dakidalako esaten zein plazer berrik hartu duen gozamen horien tokia. Errezeloa baitut ez diela plazer berri batek kendu tokia, ezpada presak, denbora alferrik galtzeko beldurra eta arreta hamaika kontu hutsaletan sakabanatzeko joerak; egiaz merezi duten kontuetan arreta ainguratu ezinak.

Eta ez dakit, ez nago seguru, ez nuke jakingo esaten, baina susmoa daukat horretan tamalez bai, zeharo normala naizela. ■■■

Hiru eszena



JUAN LUIS ROMATET

Donostiako Zinemaldia glamourrarekin, zine izarren distirarekin eta, onar dezagun, beste inoiz ikusiko ez genituzkeen pelikula tajikistandarrekin lotu dezakegu. Baina Zinemaldia estresa, nekea edo haserrearekin ere bateratu daitezke. Hiru eszenatan laburbiltzen saiatuko naiz.

1. Barrualdea. Igande goiza. Gizonezko bat kafe kikara eskutan duela ordenagailu aurrean esertzen da.

Urteroko legez pelikulen informazio guztia daraman paperarekin jarri naiz ordenagailu aurrean, sarrerak erosteko asmoz. Zinemaldiko orrian sartu naiz. Alferrik. Ni bezala, beste milaka lagun sartu dira une berean eta sistema ez da gai izan eskaera guztiei erantzuteko. Arnasa sakon hartu, mihi puntan dudan biraoa irentsi, eta nabigatzailean beste leiho bat zabaldu dut Kutxabanken orrian sartu... eta arazo bera topatzeko. Hor bai, hor eguneko lehen biraoa bota dut. Halako batean, sartu naiz sisteman eta erosi ditut sarrerak. Posta elektronikoz jasotzeko aukera erabili dut, baina ez zaizkit heltzen, eta urduri jartzen hasi naiz (bi egun geroago helduko zaizkit). Bitartean, nire haserrea partekatu dut sare sozialetan.

2. Kanpoaldea. Ostirala. Aurreko eszenako gizonezkoa ilara luze batean dago areto kanpoan, eguzkipean.

Lehen pelikula eta lehen ilara. Sarrerak ez dira zenbatutakoak eta eserleku on bat lortzeko denbora luzez egon behar da ilaran. Asiar jatorriko emakume bat hurreratu zaigu. “Barkatu, zer da hau? Sarrerak erosteko ilara?”. Ezetz dio aurrean dudan emakumeak, aretora sartzeko ilara dela esan dio. Asiarra zur eta lur geratu da. “Baina ordubete falta da-eta pelikula hasteko”, dio. Eserleku onak lortzeko egin beharreko prozesuaren berri eman dio beste emakumeak. “Orduan, egun batean lau pelikula baditut [badirudi hala dituela], ilara hauetan egon beharko dut?”, galdetu du asiarrak asaldatuta. Ezin sinetsita aurrera eta atzera dabil. Bagoaz barrura.

3. Barrualdea. Larunbata. Gizonezkoa pelikula bat ikusten ari da.

Tamalez, oraingo honetan ez dut pelikula ondo aukeratu. Jasangaitza da, baina, auskalo zergatik, ez naiz aretotik atera. Derrepentean, argi bat piztu da nire aurrean. Bi ilara aurrerago dagoen ikusle batek mugikorra piztu du, ez ordua begiratzeko eta tortura amaitzeko zenbat falta den jakiteko; ez, whatsapppeko mezuak irakurtzen hasi da inongo disimulurik gabe. Lehen aspertuta nengoen; orain, berriz, haserretzen hasi naiz, kontzertuetan sumatzen dudan edukazio falta zine aretoetara heldu delako. Eta pelikula hau ez delako inoiz amaitzen. Eta aurreko mozolo hori orain Facebooken sartu delako. Eta...

Eta hau dena hala izanda ere, datorren urtean bueltan izango naiz... espero. ■■■

**ZINEMALDIA ESTRESA,
NEKEA EDO
HASERREAREKIN ERE
BATERATU DAITEZKE**

Zumaia Berdintasunerako bidean urratsak eginez

Urriak 23

Emakumeen Etxearen definizioa osatzeko bigarren saioa
18:15 Alondegian

Urriak 30

Zumaia III. Berdintasun Planeko ekintza plana definitzeko saioa
18:00 Alondegian



Zumaia Udala

10 SARI 50€KOAK

ONGI ETORRI, *Udazkena*

— BIENVENIDO, OTOÑO

URRIAREN 8TIK 20RA

IZEN ETA LOGOTIPO LEHIAKETA

Oinarriak: www.baleike.eus



Zumaia Udala



zumaiena
zumaiakoa
zumaiarrentzat